



Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarilaren 11ko 2/1990 FORU ARAUA.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.
Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten
xedapenen zerrenda ere ageri da.

I.TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	2
1. artikulua. Helburua.	2
2. artikulua. Foru Arauaren aplikazio esparruaren mugaketa.	2
3. artikulua. Aurrekontu neurriak.	3
4. artikulua. Ardurak.	3
5. artikulua. Zerbitzu publiko funtsezkoak.	3
II. TITULUA: TASAK.....	3
I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK	3
6. artikulua. Kontzeptua.	4
7. artikulua. Baliokidetzatza printzipioa.	4
8. artikulua. Ahalmen ekonomikoaren printzipioa.	4
9. artikulua. Tasen araudiaren iturriak.	4
10. artikulua. Tasak ezartzea eta arautzea.	4
11. artikulua. Aurrekontu aurikuspena.	5
12. artikulua. Itzulketa.	5
II. KAPITULUA: TASEN ERLAZIO JURIDIKO-TRIBUTAROA	5
13. artikulua. Egintza zergagarria.	5
14. artikulua. Lurralde aplikazioa.	5
15. artikulua. Tasak sortzea.	6
16. artikulua. Subjektu pasiboak.	6
17. artikulua. Arduradunak.	6
18. artikulua. Exentzioak eta bonifikazioak.	6
19. artikulua. Tasen zenbatekoak.	7
20. artikulua. Memoria ekonomiko-finantzarioa.	7
III. KAPITULUA: TASEN GESTIOA ETA LIKIDAZIOA	8
21. artikulua. Ordainketa.	8
22. artikulua. Kudeaketa.	8
23. artikulua. Autolikidazioa.	9
III. TITULUA: SALNEURRI PUBLIKOAK	9
24. artikulua. Kontzeptua.	9
25. artikulua. Prezio publikoen zenbatekoa.	9
26. artikulua. Zenbatekoa finkatzea eta aldatzea.	9
27. artikulua. Prezio publikoak administratzea eta kobratzea.	10
XEDAPEN GEHIGARRIAK	10
Lehena. Aplikazio supletorioa.	10



Bigarrena. Zerga Foru Arau Orokorreko 26.1.a)artikuluaren aldaketa.....	11
Hirugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.6 artikuluen aldaketa.	11
XEDAPEN IRAGANKORRA	11
XEDAPEN DEROGATZAILEA	11
AZKEN XEDAPENA	12

ZIOEN AZALPENA

Tasa eta Salneurri Publikoa buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legeak Tasa eta Salneurri Publikoen arautze berri bat sartzen du, bereizketa bezala ekinkidetzat eta borondatezkotasuna planteiatzen direlarik.

Era berean arautegi berri honek printzipio konstituzionalak arautzea eta, azken finean, irudi hauek zerga sistema orokorrari atxikitzea lortzea saiatzen du.

Arauteria berriari Kontzertu Ekonomikoa aldatu beharrari erasan gabe, Foru Arau honek Tasa eta Salneurri Publikoei emandako konfiguraketa berria Lurralde Historiko honetako zerga sisteman sartzeari ekiten dio, lurralde esparru honetan dagoen errealitatearekin bat beharrezkoa diren egokitzeak eginaz eta, era berean, Hazienda Lokalen Tasa eta Salneurri Publikoen arautegi erregulatzaileari dagokionez bere izaera ordezkua ebatziz.

I.TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Foru Arau honen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoa osatzen duten Entitateetako Tasen eta Salneurri Publikoen errejimen juridikoa aratzea da.

Ondorio horietara Foru Diputazioa eta beronen menpeko Organismo edo Erakundeak hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren osagaitzat.

2. artikulua. Foru Arauaren aplikazio esparruaren mugaketa.

Foru Arau honetako prezeptuak ez zaizkie aplikatuko:

a) Eskubide pribatuko arauen arabera arituko diren Erakunde edo Organismo publikoek prestatutako zerbitzuei eta burutzen dituzten iharduerengatiko kontraprestazioari.

b) Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbaren baliabideei, zeinak legeria espezifikoz arautua jarraituko du.



c)¹ Sektore publikoko kontratuen legearekin bat, obren erabilpenagatik edo zerbitzuen prestazioagatik erabiltzaileek obren edo zerbitzu prestazioen kontzesiodunei ordaintzen dizkieten tarifei, izaera publikoko ondare prestazio ez-tributarioak diren heinean.

3. artikulua. Aurrekontu neurriak.

1. Foru Diputazioari eta bere Organismo autonomoei dagozkien eta Foru Arau honetan araututako errekurtsioak Foru Haziendako kaxan edo Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuak baimenemandako banketxe kontuetan sartuko dira.
2. Beste Erakundeei dagozkien eskubideen bilketa, gordetzea eta sartzea beraiei aplikagarri zaizkien araez erregulatuko da.
3. Foru Arau honetako lehen artikuluan adierazi baliabideen errendimendua dagokion aurrekontuen sarrerari aplikatuko zaio bere osoan, 12. artikuluan xedatua salbu, inolako minoratze eta detrakzioarik ezingo zaiolarik egin ahal.

4. artikulua. Ardurak.

Borondatez eta erruz behar ez bezala edo ezarritakoa baina zenbateko handiagoz tasa edo salneurri publiko bat exijitzen duten agintari, funtzionari publiko, agente edo asimilatuek, disziplina falta handia egingo dute, bere ihardueratik sor daitezkeen beste mailetako ardurei erasan gabe.

Era berean Foru Arau hau eta gaia arautzen duten gainerantzeko arauak hausten dituzten erabakiak hartu edo ekintzak egiten dituztenean sortutako kalteengatik Foru Diputazioari kalteordaina ordaintzera behartuak egongo dira.

5. artikulua. Zerbitzu publiko funtsezkoak.

Zerbitzu publiko funtsezkoen prestatzeagatik tasa eta salneurri publikoen ezartzea, kasuko zerbitzuen arautzaile diren Foru Arau edo Foru Arauetan aurrikusi eran bakarrik egingo da, beren erregulatzea eta aplikatzeari erasan gabe, xedapen hoiek baimen ematen dutenean, Foru Arau hoiekin bat.

II. TITULUA: TASAK

I. kapitulua: Arau Orokorrak

¹ Letra hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 12. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).



6. artikulua. Kontzeptua.²

Tasak ondoko zerga-gaia duten tributuak dira: Herri jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzu prestazioak edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenean ematea edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak ez badira edo sektore pribatuak eman edo egiten ez badituzte.

7. artikulua. Baliokidetza printzipioa.

Tasa zerbitzuaren kostua edo bere egintza zergagarria den iharduerarena berdintzen saiatuko dira.

8. artikulua. Ahalmen ekonomikoaren printzipioa.

Zergaren ezaugarriak uzten dutenean tasak ezartzerakoan kontutan edukiko da ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa.

9. artikulua. Tasen araudiaren iturriak.³

Tasak ondoko hauek direla medio arautuko dira:

- a) Foru arau hau, Zergen Foru Arau Orokorra eta, kontrakorik xedatzen ez dutenean, aplikaziozko gainerako foru arauak.
- b) Bidezkoa denean, tasa bakoitzaren foru araua.
- c) Foru arau hauek garatzean emandako arauzko arauak.

10. artikulua. Tasak ezartzea eta arautzea.⁴

1. Tasak ezarri eta horietako bakoitzaren funtsezko elementuak arautzeko, foru arauaren bidea erabili beharko da.

2. Tasen funtsezko elementuak foru arau honetako ondorengo kapituluan finkatuta daude.

² Bigarren paragrafoa ezabatzen du abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 8. artikulua. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gainerako Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).

³ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU OROKORAREN amaierako hamazazpigarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁴ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



3. Foru arau bidez baimentzen denean, bertan jasotako kuantifikazio irizpide edo elementuei jarraiki, erregelamenduzko arau bidez zehaztu ahal izango dira tasa bakoitzarentzat exigitu daitezkeen zenbatekoak.

11. artikulua. Aurrekontu aurrikuspena.

1. Tasetatik eratortzen diren sarreren aurrekontu errejimena, Gipuzkoako Foru Hazienda osatzen duten sarrerei aplikagarri zaiena izango da.
2. Tasen bilketa emaitza beharkizun orokorrak betetzeko zuzenduko da, Foru Arauen bidez esleipen jakin bat ematen denean salbu.

12. artikulua. Itzulketa.

Exigitu izan diren tasen itzulketa egokia izango da, bere egintza zergagarria subjektu pasiboari atxeki ezin zaizkion zioengatik egiten ez denean.

II. kapitulua: Tasen erlazio Juridiko-Tributaroa

13. artikulua. Egintza zergagarria.

Honakoak diren Zuzenbide Publikoko erejimen iharduerak burutzea edo zerbitzuak prestatzeagatiko tasak ezarri ahal izango dira.

- a) Lizentzia, bisatu, matrikula edo baimen administratiboak izapidatu edo luzatzea.
- b) Alde baten eskarizko ziurtagiri edo dokumentuen luzatzea.
- c) Liburuen legeztatze eta zigilatzea.
- d) Zaintza, gidaritza, ikuskaritza, ikerkuntza, estudio, txosten, aholkularitza, frogaketa, aitortza edo prospekzioa iharduera tekniko edo fakultatiboak.
- e) Proiektuen azterketa, egiaztatzeak, kontrastaketak, saioak edo homologaketak.
- f) Baloratze eta tasaketak.
- g) Pertsona jakin batzuei mesede egin, erasan edo dagozkien, edo zuzenean ala zeharka hauek eraginak diren zerbitzu eta iharduerak orokorrean.

14. artikulua. Lurralde aplikazioa.

Zerbitzu edo iharduera publikoagatiko tasak beraien burutze edo prestatzeagatik exigituko dira, ondorio hauetarako garrantzirik izango ez duelarik zerbitzua prestatzen edo iharduera burutzen den lekuak.



15. artikulua. Tasak sortzea.⁵

1. Tasak kasu hauetan sortu ahal izango dira beren zergagaiaren izaeraren arabera:

a) Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia baimentzen denean, edo zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, aurretiazko gordailua eskatzeko aukera eragotzi gabe.

b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo tramitatu aurretik behar den kopurua ordainduko da.

2. Tasak aldizka sortzen direnean, behar den erregistro, errolda edo matrikulako altaren likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak denak batera jakinarazi ahal izango dira GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEko iragarkien bidez.

16. artikulua. Subjektu pasiboak.⁶

1. Tasen subjektu pasiboak izango dira herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziaren onuradunak diren pertsona fisiko edo juridikoak edo, bestela, tasen zergagaia diren zerbitzu edo jarduera publikoek pertsonalki edo haien ondasunetan eragin edo onura ekartzen dieten pertsonak.

2. Hala behar denean, subjektu pasibotzat hartuko dira herentzia banatugabeak, ondasun komunitateak eta, nortasun juridikorik gabe, tasa ezarri dakioken unitate ekonomikoa edo ondare berezitua osatzen duten gainerako entitateak.

17. artikulua. Arduradunak.

1. Zerga zorraren ardura eta berme gaietan Zerga Foru Arau Orokorrak aurrikusitakoaren kalterik gabe, solidarioki izango dute tasen erantzuna tasa baten oinarri zergagarria diren iharduera edo zerbitzu administratiboak eragiten dituzten Elkarte edo Erakunde arriskuziurtatzaileek.

2. Etxebizitza, pabiloi, lokal edo, eskuarki, higiezin okupatzaile eta erabiltzaileei mesede egiten dieten iharduera edo zerbitzuagatik ezarritako tasetan, arduradun subsidiario izango dira higiezin horien jabeak.

18. artikulua. Exentzioak eta bonifikazioak.

⁵ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

⁶ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



8. artikuluan aurrikusitakoari erasan gabe, ez da onartuko, tasa gaietan, inolako zerga onurarik, Gipuzkoako Foru Diputazioaren, edo gainerantzeko lurralde Erakunde Publikoen edo instituzionalen alde salbu edo Nazioarteko Tratatu edo Hitzarmenetan ezarritako ondorio legez bestela.

19. artikulua. Tasen zenbatekoak.⁷

1. Herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagarengatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko da merkatuko balioa edo erabileraren erabilgarritasunaren balioa.

2. Oro har eta ondorengo parrafoan jasotakoaren arabera, zerbitzua emateagatik edo jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan, batera hartuta, zerbitzu edo jarduerak benetan duen edo izan dezakeen kostua edo, halakoaren ezean, zerbitzuaren prestazioaren balioa baino.

3. Zenbateko hori zehazteko kontuan hartuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak, kostu finantzario aplikagarriak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala behar denean, tasa exigitzen zaion zerbitzu edo jardueraren mantenimendua eta bidezko garapena bermatzeko behar diren kostuak barne, eta hori guztia haiek ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua kontuan hartu gabe.

4. Zerga kuota horretarako erabakitako kopuru finkoa izan daiteke, oinarri ezargarriaren balioa duten elementu kuantitatiboen gainean aplikatzeko karga tipo baten arabera zehaztu daiteke edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatu daiteke.

20. artikulua. Memoria ekonomiko-finantzarioa.⁸

1.⁹ Beste tasa bat ezartzeko edo lehendik dagoen baten zenbatekoak berariaz aldatzeko edozein proposamenetan, berau prestatzeko aintzat hartutako aurrekarien eta alde zuzeneko azterlanen artean, memoria ekonomiko-finantzario bat sartu behar da dena delako baliabidearen edo jardueraren kostu edo balioari buruz eta proposatutako tasaren zenbatekoaren arrazoiei buruz.

⁷ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezkotako araudia aldatu eta ondarezkotako prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

⁸ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezkotako araudia aldatu eta ondarezkotako prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

⁹ Apartatu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUaren 7. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).



Beharkizun hori ez bada betetzen, tasen zenbatekoak finkatzen dituzten erregelamenduzko xedapenak zuzenbidean erabat deusezak izango dira.

Aurrekoa gorabehera, lehen paragrafoan aipatu den memoria ekonomiko-finantzarioa aurkeztea ez da beharrezkoa izango izaera orokorreko birbaloratze edo eguneratzeak egiten direnean edo tasen zenbatekoa murrizten denean, kasuan kasuko zerbitzuaren kostua nabarmen jaisten ez bada behintzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, murrizpena nabarmena dela joko da aurreikusten denean zerbitzuaren kostua 100eko 15 baino gehiago jaitsiko dela tasak ezarri edo aldatzeko erabakiari erantsitako txosten tekniko-ekonomikoan aurreikusitakoaren aldean. Txosten tekniko-ekonomikorik ez aurkeztea arrazoitzeko, gastua kudeatzen duen organoak berariaz utzi behar du jasota aldaketa onartzeko espedientean kostua ez dela modu nabarmenean murrizten.

2. Herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak berarekin dakarrenean aurreko apartatuan aipatutako memoria ekonomiko-finantzarioan jasota ez dagoen jabari publikoaren suntsidura edo narriadura, tasaren subjektu pasiboa behartuta egongo da berreraikuntza edo konponketa gastuen kostu osoa itzultzeraz, tasa ordaintzea eragotzi gabe. Kalteak konponezinak badira, kalteordaina subjektu pasiboak suntsitutako ondasunen balioaren edo ondasun narriatuei eragindako kaltearen zenbatekoaren adinako kopurua izango da.

III. kapitulua: Tasen Gestioa eta Likidazioa

21. artikulua. Ordainketa.

Tasen ordainketa eskudirutan edo efektu tinbratuak erabiliz egin daiteke, erregelamenduz xedatzen denaren arabera.

22. artikulua. Kudeaketa.¹⁰

1. Tasen kudeaketa Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari dagokio, tasa bakoitza arautzen duten foru arauetan xedatutakoa eragotzi gabe.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, eta tasa bakoitzaren izaera eta ezaugarriak kontuan harturik, arauz finkatu ahal izango da Foru Aldundiko beste departamentu batzuek nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaz besteko ente edo organismoek zerga kudeaketako prozeduran parte hartzea.

3. Tasak kudeatzean, edozein kasutan aplikatuko dira Zergen Foru Arau Orokorrak II. eta III. tituluetan jasotako printzipioak eta prozedurak, hurrenez hurren, eta IV. eta V. tituluetan jasotako zigor erregimenari eta egintzak administrazio bidean berrikusteari buruzko arauak.

¹⁰ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hamazazpigarren xedapenaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2205-03-17 GAO).



23. artikulua. Autolikidazioa.

Tasen subjektu pasiboek zerga autolikidazioko eragiketak burutzeko obligazioa izango dute eta haien zenbatekoaren sarrera Foru Haziendan egitekoa, erregelamenduz hala aurrikusten denean.

III. TITULUA: SALNEURRI PUBLIKOAK

24. artikulua. Kontzeptua.¹¹

1. Prezio publikotzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumeneko zerbitzu prestazioak edo jarduera administratiboak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, baldintza hauek betetzen direnean:

— Zerbitzu edo jarduera horiek ez izatea administratuek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak.

— Zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak eman edo egitea.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, administratuen eskaera ez da borondatezkoztat joko:

a) Lege edo erregelamenduzko xedapenetan ezarrita etortzen zaienean.

b) Ezinbesteko baldintza denean edozein jarduera egiteko edo eskubide edo ondorio juridiko jakin batzuk lortzeko.

25. artikulua. Prezio publikoen zenbatekoa.¹²

1. Prezio publikoak, gutxienez, jarduerak egin edo zerbitzuak ematearen kostu ekonomikoak estaltzeko adinakoak izango dira edo, bestela, zerbitzu edo jardueren erabilgarritasunaren maila baliokidea izango dute.

2. Bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, aurreko apartatuan jasotako parametroak baino txikiagoak diren prezio publikoak jarri ahal izango dira. Dena den, administrazioak subentzionatutako prezioaren zatia estaltzeko behar diren aurrekontu neurriak hartuko dira aurretik.

26. artikulua. Zenbatekoa finkatzea eta aldatzea.¹³

¹¹ Artikulu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 12. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

¹² Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



1. Prezio publikoen zenbatekoa finkatu edo aldatzeko, foru dekretuaren bidea erabiliko da.
2. Prezio publikoen zenbatekoa finkatu edo aldatzeko proposamen guztietan, memoria ekonomiko-finantzarioa egin behar da prezioen zenbatekoaren justifikazioari buruz eta kostuen estaldura finantzarioaren mailari buruz.

27. artikulua. Prezio publikoak administratzea eta kobratzea.¹⁴

1. Prezio publikoak jaso behar dituzten departamentuek eta organismo publikoek administratu eta kobratuko dituzte.
2. Prezio publikoak exigitu daitezke beren exigentzia justifikatzen duten zerbitzuak ematen hasten denetik.
3. Prezio publikoak eskudiruz edo efektu tinbratuak erabiliz ordainduko dira.
4. Prezio publikoen zenbatekoa osorik edo zati batean aurreratu edo gordailatzea exigitu ahal izango da.
5. Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez denean edo jarduera egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio edo, ikuskizunak badira, sarreren trukea egingo da hori egin ahal izanez gero.
6. Prezio publikoengatik sortutako zorrak premiamenduzko prozedura administratiboaz eskatu ahal izango dira, indarrean dagoen araudiari jarraiki.
7. Foru arau honetan espresuki jasota ez dagoenari dagokionez, prezio publikoak administratu eta kobratuko dira Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araudiari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera eta haiei aplikagarriak zaizkien gainerako arauak jarraiki.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Aplikazio supletorioa.

Foru Arau honetan xedatutakoa aplikazio supletoriokoa izango da Hazienda Lokaleko tasak eta salneurri publikoak arautzen dituen arautegiarekiko.

¹³ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

¹⁴ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



Bigarrena. Zerga Foru Arau Orokorreko 26.1.a) artikulua aldaketa.

Urtarrilaren 31ko 1/1985 Foru Arauaren 26.1.a) artikulua honela idatzita geratuko da:

“Tasak bi zirkunstantziok biltzen diren subjektu pasiboei erasan, egokitu, edo mesede egiten dieten Eskubide publikoko errejimenean iharduerak burutzea edo zerbitzuak prestatzea diren egintza zergagarriaren tributua dira:

a) Administratuek derrigorrean eskatu edo jasotzekoak direnean.

b) Partikularren ihardueran eskuartzea edo agintearen aritzearen beste edozein adierazpide, zerbitzu hoiekiko indarrean dagoen arauteriarekin bat sektore publikoaren aldeko erreserba ezarria dagoelako, duten neurrian sektore pribatuak prestatu edo egin ezin ditzakeenean.”

Hirugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.6 artikulua aldaketa.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko martxoaren 3ko 3/1986 Foru Arauaren 5. artikuluko 6. pasartea aldatua geratuko da bere idazkeran modu honetan:

1. Bigarren pasartean m) hizki bat gaineratzen da, edukin honekin:

“m) Hiltegikoak.”

2. Hasierako pasarte bat gaineratzen da, honela idatzita:

“Kontsezio eta baimen administratiboen eraketa erreez da Zergari atxikia egongo, portu eta aireportuetako inmuebleak edo instalazioak erabiltzeko eskubidearen lagapena xedetzat dutenak ezik.”

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Indarrean dauden tasak, jatorri parafiskalakoak eta exakzio parafiskalak izenekoak barne, esijitzen jarraituko da, Foru Arau hau indarrean sartzean aplikagarriak diren arauen arabera, beronetako 10. eta 26. artikuluetako prebisioek eragiten duten arte.

2. Aurreko pasartean aurrikusitakoa halaber aplikatuko da gaur egun indarrean dauden izaera publikoko prezioekiko.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Xedapen iragankorrean xedatutakoaren kalterik gabe, Foru Arau hau indarrean sartzean derogaturik geratzen dira aurka egiten dioten maila bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak, aipatutako xedapenen arabera aurretik debengaturiko kopuruak exigitzeko Administrazioak duen eskubidearen kalterik gabe.



AZKEN XEDAPENA

1. Gipuzkoako Foru Diputazioari baimena ematen zaio Foru Arau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.
2. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Irailaren 15eko 73/1998 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia uztailaren 13ko 25/1998 legeak, Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeak, jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen duena. (1998-09-18ko GAO).*
 - 2. artikulua 6., 10., 15., 16., 19., 20., 24., 25., 26. eta 27. artikulua aldatzen ditu.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).*
 - Bere amaierako hamazazpigarren xedapenak 6. artikulua, 9. artikulua eta 22. artikulua aldatu ditu.
- *Pertsona Fisikoen Errentaren Gaietako Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).*
 - Bere 8. artikulua 6. artikuluko 2. paragrafoa edukirik gabe uzten du.
- *2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituena (2012/12/28ko GAO).*
 - Bere 7. artikulua 20. artikuluko 1. apartatua aldatzen du.
- *3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituena. (2019/02/20ko GAO).*
 - Bere 12. artikulua ondorengoak aldatu ditu:
 - Bat apartatuak c) letra gehitu dio 2. artikuluari.
 - Bi apartatuak 24. artikulua aldatu du.